

AURKEZPENA

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE

xx. mendearen bigarren hamarkada bukatzean dator euskal onomastika aplikatua aztergai duen liburu hau. Gaurkotasun handiko lan-eremua izaten jarraitzen du gurean. Agerikoa da Euskal Herrian lan handia egin dela eta asko aurreratu dela azken berrogei urtean euskal toponimiaren estandarizazioan eta normalizazioan. Hori posible izan da euskarari, ofizialtasuna aitortzearekin batera, Administrazioaren atek ireki eta erabilera normalizatua erdietsi duen neurrian. Hala ere, jakin dakigu gure hizkuntzak ez duela oraindik estatus bera euskararen geografia osoan (Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan, Ipar Euskal Herrian eta Trebiñun); errealitate aniztun horrek alderik dakar, ezinbestean, toponimiaren erabilera normalizatzeko garapenean eta desberdintasunik gertuko beharrizanetan. Nolanahi ere, gehien aitzinatu diren Administrazioetan ere, toponimiaren normalizazioa oraindik da hizkuntza-politikaren ardura nagusietako bat, baten batek pentsa lezakeenaren kontra. Zinezko elebitasunaren bidean, baitezpadakoa da onomastikaren zutabea euskararen normalizazioaren eraikinean.

Onomastika aplikatuak erabateko zentzua hartzen du normalizazioaren zerbitzura, euskal gizarteak onomastikaren arloan dituen behar praktikoei zuzen eta garaiz erantzunez. Horixe izan da helburua Onomastika batzordearen sorreratik beretik, euskal izenak bildu, sailkatu, ikertu eta arautzea, euskararen erabileran eta normalizazioan bidea egin dezaten. Gainera, egungo tresna teknologikoen aurrerapausoek aukera berriak eta eraginkorrak eskaintzen dituzte. Liburu hau paratzera eraman gaituzten arrazoiak bi dira, nagusiki. Batetik, onomastika aplikatuaren ezagutza zabaltzen laguntzea; bestetik, Euskal Herriaz haragoko

zenbait esperientzia lehen eskutik ezagutzeko aukera izatea, eta, era horretan, gogoeta partekatua bultzatzea.

Liburua hiru ataletan egituratuta dago. Lehenbizikoan Euskal Herriaz kanpoko bost esperientzia aurkezten dira, guztiak onomastika aplikatuaren bidean daudenak. Hizkuntza-errealitate desberdinak izanik, bakoitzak du bere testuingurua, kasuan kasuko problematika berezia, eta, zein bere aldetik, ikuspegi aberasgarria osatzen dute. Bigarren atalean bildutako lau kapituluak euskal onomastika dute erdigune, eta egungo egoeraz eta aurrera begirako egitekoez ere ari dira. Azkenik, hirugarren atala hiru kapituluk osatzen dute. Hirurek jorratzen dituzte Euskaltzaindiak azken aldian euskal onomastika aplikatuari egin dizkion zenbait ekarpen nabari.

Lehen atala Olier ar Mogn-en kapituluarekin irekitzen da. Zuzendari zientifikoa da Ofis Publik ar Brezhoneg — Bretoieraren Erakunde Publikoan. Hizkuntza nabarmen gutxitua da bretoiera. Hiztunen galera latza pairatu du azken belaunaldietan, batez ere 1950. urtetik aurrera. Halako moldez non gaur egun soilik 210.000 pertsona inguru mintzo diren bretoieraz; hau da, Britainia historikoak duen biztanleriaren % 4,6k besterik ez daki bretoieraz.

Toponimiaren erabilerari dagokionez, egilearen esanean, Bretainiako herritarrei egindako inkestetan gorantz doa bretoiera zerbitzu publikoetan agertzearen aldeko iritzia, eta, zehazki, bide-seinaleetan erabiltzearen oso edo nahiko aldeko jarrera du biztanleriaren % 70k. Eskaera sozial horri erantzuteko lan egiten du, 2010. urteaz geroztik, Bretoieraren Erakunde Publikoak. Erreferentziako erakundea da seinaleztapen elebidunaren arloan, eta bretoierazko toponimoen forma normalizatuak ezartzen ditu Ondare Linguistikokoaren Zerbitzuaren bidez. Normalizazio-lanean dituzten oinarri nagusiak zehazten ditu Olier ar Mogn-ek, eta toponimiari lotutako kontsultak erantzuteko baliatzen duten *KerOfis* datu-base toponimikoa aurkezten du.

Bretoieraren egungo egoera ahulak zailtasun handiak dakartzkio toponimoen erabilera publikoa hedatzeari, eta ez nolanhikoak, aski oinarrizkoak baizik. Jaiotzatiko bretoierazko hiztun tradizionalak adin handikoak izaten dira eta azkar desagertzen ari dira. Hortaz, erlojuaren kontrako lasterketa batean lan egitera behartuta daude, ahal den toponimia-ondare guztia salbatzeko eta toponimoen forma normalizatuak berrezartzeko. Etorkizunaren aldeko apustu gisa ikusten du Bretoieraren Erakunde Publikoak egiten duen lana.

Bigarren kapituluan Institut d' Estudis Catalans-ek normalizazio toponimikoaren arloan egindako lana erakusten du Onomastika Bulegoaren buru den Joan Anton Rabellak. Aurrekari historikoetara jotzen du lehenik, eta 1921ean sortutako Oficina de Toponimia i Onomàstica delakoa ageri da abiapuntu gisa. Gerra Zibilak eta diktaturak eragindako etena etorri zen gero, eta 1992ra arte ez zen berriro eratu egungo Oficina de Toponimia i Onomàstica.

Kapituluaeren muina dira toponimia-normalizazioaren egitasmoak eta lanak, nagusiki onomastika aplikatuari begirakoak:

Frente a una visión tradicional del estudio de la toponimia centrado en la etimología, actualmente los trabajos de la Oficina se relacionan primordialmente con labores y proyectos de carácter práctico o aplicado, y en la mayoría de casos dirigidos a la normalización de la toponimia catalana.

Izendegien garrantzia nabarmentzen du Joan Anton Rabellak. Kataluniako toponimia nagusiaren lehenbiziko izendegi ofiziala 1998-2003 epean burutu zen, eta azken eguneraketa 2018an amaitu da. Onomastika Bulegoaren lanetan beste ildo garrantzitsu bat da udal-esparruko monografia onomastikoena, oso tresna praktikoak baitira tokian tokiko toponimia babestu eta normalizatzeko.

Egileak adierazten du toponimiaren normalizazioak, funtsean, izen geografiko bereziei hizkuntza-irizpideak aplikatzean datzan arren, toponimiak kontuan hartu behar diren espezifikotasun asko dituela; besteak beste, forma dialektalak eta lokalismoak nola jaso forma arautuetan. Hartarako, garrantzizkoa da berriazko irizpideak sortzea. 2006an *Criteria per a la toponímia d'àmbit municipal* eskuliburua plazaratu zuen Institut d'Estudis Catalans-ek, udalei zuzendua, tresna lagungarri gisa hiri-bideetako eta landa-eremuko seinaleetako toponimien erabileran.

Atal honen hirugarren kapituluaren gaskoiaren normalizazio toponimikoaz dihardu Vincenç Rivière doktoreak. Misio linguistikoaren arduraduna da Congrès Permanent de la Lengua Occitana erakundean. Erakunde horren lan-ildoetan dago toponimoen egungo aldaerak nahiz historikoak biltzea, ikertzea eta beren forma arautuak ezartzea. Horretarako esparru teoriko-metodologikoa definitzen du lehendabizi kapituluaren egileak. Okzitanieraren Charnego eta Tolosako Gaskoinia bi eremu linguistikoetatik hartutako adibide konkretuetatik abiatuta, Vincenç Rivière frogatzen saiatzen da okzitanieraren arau toponimikoak, oro har, ondo egokitzen direla gaskoira.

Normalizazio toponimikoaren atalean, faktore erabakigarritzat du iturburu-hizkuntza, eta hizkuntza bakoitzari transkripzio-prozesu bat egokitu behar zaio-la dio. Bere irizpideari jarraikiz, Vincenç Rivière-k proposatzen du toponimoen osagai espezifikoari —hots, izen bereziari— jatorrizko hizkuntzaren grafia aldatzea. Hortaz, Ipar Euskal Herrian gaskoiz ere mintzo diren herrietako euskarazko toponimoak gaskoiaren grafiaz idaztearen alde ageri da, esaterako karrikazenen bertsio gaskoian. Era horretan, *Bordaxuri* eta *Etxezahar* euskal izenak gaskoiz *Bòrdashori* eta *Echesahar* grafiarekin idatzi behar dira, bere irudiko.

Esan behar da puntu horretan ez datozela bat Vincenç Rivière-k proposatutakoa eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen irizpidea. Izan ere, izen

bereziak sorburu-hizkuntzan duen grafia errespetatzea hobesten du Onomastika batzordeak, gaskoiarekin eta orobat gaztelaniarekin eta frantsesarekin. Irizpide hori aplikatzen ari da Ipar Euskal Herrian ere, herri-izendegietako eta seinalezta-pen-xafletako toponimiarekin. Adibidez, euskarazko *Bordaxuriko bidea* gaskoiz *Camin de Bordaxuri* ezarri da; eta, gaskoizko *Camin de Maisonna* bidearen euskal izentzat *Maisonnava* *bidea* finkatu da.

Hurrengo kapituluan toponimiaren estandarizazioak Andaluziako testuinguru linguistikoan dituen berezitasunak aurkezten ditu Stefan Ruhstaller Sevillako Pablo de Olavide unibertsitateko irakasleak. Bere esanean, une erabakigarria da Andaluziako ondare toponimikoaren kontserbazio egokia ziurtatzeko; batez ere, toponimia txikiko izenei dagokienez. Oraintsu arte ahoz eta komunitate txikien esparrura mugatzen ziren leku-izenek aplikazio osoa dute gaur egun mapetan, datu-base geografikoetan, gida turistikoetan eta abarretan. Stefan Ruhstaller-ek dio zabalkunde horrek dakarren onura arrisku ere bilaka daitekeela toponimoen idatzizko forma zuzena ez bada. Izan ere, baliabide ahaltsu horiei esker, izen akastunek azkar egiten dute beren bidea, finkatu egiten dira gizontean, eta nekez zuzendu ahalko dira etorkizunean.

Agerian jartzen du egileak Andaluziako toponimiaren estandarizazioari buruzko problematika, eta irizpide argiak izatearen garrantzia. Funtsezkoa da, bere iritziz, forma estandarizatu ados egotea benetako erabilerarekin eta ezaugarri linguistikoekin eta soziolinguistikoekin, hiztunen gaitzespenik izan ez dadin. Soilik ahoskerari dagozkion ezaugarri dialektal gehienak ez jasotzearen alde dago egilea. Aldiz, leku-izen bakoitzaren ezaugarri morfologiko eta lexikoak erabateko fidelitasunez islatu behar dira.

Andaluziako toponimiaren estandarizazioan erabili beharreko irizpideak ezin dira besterik gabe beste lurralde batzuetara estrapolatu. Hori irudikatzeko, zeharo desberdina den lurralde bateko errealitatearekin erkatzen du egileak. Andaluzia ez bezala, Suitza germanofonoa diglosikoa da, bertan erabateko oposizioa dago dialektoaren eta aleman estandarraren artean, eta bestelako estandarizazio irizpideak aplikatzera behartzen du horrek. Horregatik, Suitzako toponimia txikiaren arautzaileek tokiko hiztunen komunitateetan benetan erabiltzen diren formak zehaztasunez islatzea erabaki dute, hizkuntza estandarrera hurbildu beharrean.

Bosgarren kapituluan Antón Santamarina akademikoak Galiziako aberastasu toponimiko bikaina azaltzen du, eta ondare oparo hori zaintzeko eta zabalitzeko egin diren lanak erreparatzen ditu. Galiziak espainiar estatuaren azaleraren % 6 baino ez du hartzen, baina Espainia osoko biztanle-entitateen % 42 baino gehiago ditu. Toponimoen ugaritasun hori azaltzen duten Behe Erdi Aroko sus-trai historikoetan sakontzen du. Toponimiaren mendez mendeko transmisioa

nola izan den deskribatzen du, kontaktu linguistikoa kontuan hartuz, eta jasan-dako distortsio-prozesua iraultzeko neurriak ere aztertzen ditu.

Hizkuntza Normalizazioari buruzko 1983ko Legeak Galiziako toponimoek forma ofizial bakarra galizieraz izango zutela ezarri zuenerako, biztanle-entitateen ia erdia desitxuratuta zegoen. Antón Santamarina partaide izan da egoera hori arzteko sortu zen batzordearen lanetan.

Bere esanean, konpexuagoa da mendiei, ibaiei, laborantza-lurrei eta abarren bilketa burutzea. Gaur egun arte egindako urratsen berri ematen du Galiziako akademikoak. Horien artean aipagarria da *Galicía Nomeada* izeneko aplikazioa, mikrotoponimoen bilketa elkarlanean aurrera egiteko balioko duena. Tresna horren bidez, erregistratutako erabiltzaileek leku-izenak sartu eta geolokalizatu ahalko dituzte.

Galiziako esperientzarekin bukatzen da liburuaren lehen atala. Bigarren atalean lau egileren ekarpenak biltzen dira. Lau begirada zorrotz dira egungo euskal onomastikaren egungo egoeraz eta aurrera begirako egitekoetz.

Bigarren ataleko lehen kapituluak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-rako Sailburuordetzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) egindako lana azaltzen du Araceli Díaz de Lezana arduradunak. Bi garai bereizten ditu: batetik, toponimoak datu-base alfanumeriko batean jasotzen eta gordetzen zirenekoa; bestetik, informazio geografikoaren sistemei esker (GIS sistemak), toponimia eta kartografia uztartzeko eskura dauden egungo garaia. Azken urteotako garapen teknologikoak ahalbidetu du mapetan eta izendegi geografikoetan toponi-moak dagozkien geoerreferentziekin ikusi ahal izatea.

Egileak dihardu Euskararen Aholku Batzordearen barruan 1996. urtean sortutako Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren sorreraz eta ibilbidez. Topo-nimia-lanen garai berria EAEko Izendegi Geografiko Ofizialarekin lotzen du. Tresna ahaltsu hori 2019az geroztik on line kontsulta daiteke. EAEko Izendegi Geografikoari izaera ofiziala eman dio Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak.

Azkenik, Araceli Díaz de Lezanak nabarmentzen du Toponimia Batzorde-atal Bereziak EAEko toponimia lanerako metodologia 2020ko otsailean onartu izana. Horren helburua da eskumenak dituzten entitateen arteko toponimia-lana koordinatzea, bereziki EAEko Izendegi Geografikoa zuzendu, osatu eta eguneratzeari begira. Finean, toponimia normalizatu hori IGNren Nomenclátor Geográfico Nacional-ean integratzea eta, horrela, mundu globalizatuaren eskura jartzea. Oso garrantzitsua da toponimo ofizialen hedapena eta beren aplikazioaren jarraipena egitea, erabilera okerrak detektatzeko eta behar diren zuzenketak ongi burutzen direla egiaztatzeko.

Bigarren ataleko bigarren kapituluan Patxi Galé onomastika batzordeko kidea Euskaltzaindiko Euskal Corpus Onomastikoaz ari da. Egitasmo ofizial gisa 2005ean onartu zuen Akademiak, nahiz eta lehenbiziko urratsak 2000n egin ziren. Hasierako helburua izan zen Onomastika batzordeak egiten duen estandarizazio-lanerako datu-base lagungarria izatea “hartzen diren erabakiak behar bezala hartzeko”. Lan-tresna hori helburu horrekin joan da etengabe hazten eta emendatzen. Datu-iturriak ugari dira: artxibategietako dokumentuak, kartografiak, argitalpen historiko eta geografikoak, katalogoak, hiztegiak, hizkuntzalarien ikerlanak, izendegi ofizialak, Euskaltzaindiaren erabakiak...

ECO datu-baseak atal publikoa du: Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA), Euskaltzaindiaren webgunearen bitartez plazaratzen dena. 2019ko ekainera arte, ECO datu-basean dauden estandarizazio-proposamenetatik soilik jaso izan dira EODAn Akademiaren Osoko bilkuraren edo Onomastika batzordearen berariazko oniritzia dutenak. Aldiz, aurrerantzean askoz datu gehiago ageri dira EODAn. Erantsi direnak Euskaltzaindiak ez, baina bestelako ikertzaileek aztertu eta proposatuak dira. Izan ere, ikertzaile eta lantalde askok Euskaltzaindiaren arautze-irizpide berberak erabili dituzte, eta beren emaitzak uztargarriak dira hizkuntzaren normalizaziorako ildo akademikoarekin. Hortaz, horrelako datuak ere txertatu dira EODAn. Patxi Galék dioenez, “horrela, datu horiek beste ikerketa batzuetan erabilgarri izango dira eta euskal onomastikaren normalizazioan aurrerabidea erraztuko dute”. Amaitzeko, ECOren etorkizuneko zenbait erronka proposatzen ditu egileak.

Hurrengo kapituluan Roberto González de Viñaspre Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen buruak gogoeta egiten du Onomastika batzordearen ikuspegitik euskal onomastikak aurrez dituen egiteko nagusiez. Batzordea 1983an sortu zenekoa dakar gogora, eta hasieratik ezarriak dituen egiteko nagusiak. Toponimiaren estandarizazioan, Euskaltzaindiari dagokio, Euskal Herri osoan, toponimoen forma arautu zuzenak ezartzeko irizpide linguistikoak finkatzea eta erakunde publikoei aholkua ematea. Eginkizun horretan garrantzi handikoa iruditzen zaio onomastikaren arloan diharduten ikertzaileekiko komunikaziorako zubigintza eraikitzea eta sustatzea, nork bere inguru geografikotik, bere ikerketa-arlotik edo jakintza-eremutik, ekarpena egin dezan, xede komuna den ondare toponimikoa hedatzearen eta jagotearen mesedetan.

Onomastika batzordearen ekarpenak gizartearen beharrei erantzutera daitez. Horretarako sortu zen batzordea. Hori du berezko xedea. Azken aldiko eguneratze eta berritze lanen ondorio eta emaitza dira pertsona-izendegi berriak eta kale-izenak arautzeko irizpide-bilduma. Bi-biak gizarte-proiektzio zabalekoak, onomastika aplikatuaren erakusgarri garbiak. Ahaztu gabe ondare toponimikoa berreskuratzeko eta toponimo estandarizatuen zabalkundea bultzatzeko eredugarria den Gasteizko Toponimia egitasmoa.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea beste zenbait lan-ildotan abiatu da azken aldian. Eginkizun zehatzak ditu aurrez aurre. Esaterako, Akademiak aspaldian landu eta ezarri zituen euskal toponimia finkatzeko arautze-irizpideak. Azken hogeit hamar urtean bildutako esperientzia oparoaren ikuspegitik, irizpideak sakonki berrikusteari eta eguneratzeari lotu berri zaio Onomastika batzordea. Batzordeburuak dioenez, arautze linguistikoaren funtsezko xedea zera da: leku-izenen idatzizko eta ahozko tradizioak aintzat harturik, belauneha belauneko forma linguistikoaren jarraitutasuna bermatzea eta, horrela, ondarea babestea. Egitekoen zerrendan, euskal deituren idatzera arautua da oraindik osatu gabeko beste lan garrantzitsu bat, datozen urteetan lehentasunez lantzea merezi duena. Dударik gabe, zeregin horretan laguntza handikoa izango da urtez urte EOn bildutako informazio joria. Jakitun da batzordeburua deituren grafia gai minbera dela, norbanakoentzat hain gertukoa izanik. Izan ere, gizartean badira oraindik euskal deituren erabileran sakonki errotutako auzo hizkuntzen sistema grafikoaren menpeko ohiturak.

Bigarren ataleko azken kapituluan Patxi Salaberri katedradunak eta euskaltzain osoak agerian jartzen du ikerketa-lana oinarritzakoa dela toponimoen arauketa-lana bermez egin ahal izateko. Horren beharra erakusteko, berak barren-barrenetik ederki ezagutzen duen Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen ibilbide historikoaz dihardu garden bezain zintzo, autokritikari ere muzin egin gabe.

Dioenez, trantsizio politikoaren garaiak markatu zuen urte haietan euskal onomastikarien lan egiteko modua. Euskarari aitortza ofiziala emanik, hiri eta herri bakoitzak euskal izen egokia behar zuen, eta lehenbailehen gainera, mapean, testuliburuetan, errepide-seinaleetan eta abarretan idazteko. Ikerketarako astirik eta baliabiderik ez zen egon, batik bat euskara desagertua zegoen eskualdeetako toponimoak aztertzeke. Hala ere, argitara eman behar izan zen 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, eta, egileak dioten bezala, “kritika errukigabeen iturbegi izan dira gero Onomastika batzordean aritu garenondako [...] Zernahi gisaz, bekatu larriak egin baziren ere, proposatu ziren izenetako anitz arras egokiak ziren”. Patxi Salaberriren esanean, toponimiari lotutako erabakiak eztabaida-iturri izaten dira, herri-izenetan batez ere, ez baitira hizkuntza-gai hutsak izaten, baizik eta gizartearekin zuzenean lotuak eta, ondorioz, politikarekin ere bai. Ezin ukatuzkoa da leku-izenek balio sinboliko handia dutela.

Patxi Salaberri azpimarratzen du ikerketa baitezpadakoa dela arauketa zuzena izango bada, bestela bide egin dezaketen forma makurrak proposa daitezkeelako, gero zuzentzen lanak ematen dituztenak. Hortaz, funtsezko ideia da ikerketa-lana — artxibategietako eta ahozko datuak biltzea eta aztertzea — ezinbesteko zeregina dela onomastikaren arlo guztietan. Horren etsenplu argigarria dakar egileak:

Luzaideko *Arbanta* izena. Toponimia nagusitik, mikrotoponimiatik, oikonimiatik ekarritako adibideen bitartez garbi ikusarazten du ikerketaren munta.

Azkenik, antroponimiara etorruta, egileak dio ponte-izenen eta deituren arloan hartzen diren erabakiak eragin handikoak direla gizartean. Esparru horretan ere galderak anitz dira, arazoak ugariak direlako.

Liburuak duen egituran, hirugarren atalean jasotzen dira euskal onomastika aplikatuari Euskaltzaindiak egindako ekarpen berrienak. Hiru kapitulu dira.

Lehenbizikoan, Patxi Galé Onomastika batzordeko kideak Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA) berrituaren nondik norako behinenak azaltzen ditu, zenbait xehetasunetan sartuz.

Atal honetako bigarren kapituluan, Alfontso Mujika Onomastika batzordeko idazkariak azaltzen du batzordeak landu eta Euskaltzaindiak 2019an argitara eman duen *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak. Euskal odonimiako eskuliburua*. Mende laurden inguruan Onomastika batzordeak Euskal Herriko udalen kontsultei emandako irizpenak eta aholkuak ditu oinarri liburu horrek. Egilearen esanean, hasieratik honainoko ibilbidea luzea eta emankorra izan da. Hutsaren hurrengotik abiatuta eta praktikatik ikasiz eratu behar izan zituen batzordeak arautze-irizpideak, eta ez da ahaztu behar euskararen estandarizazioa ere ez zegoela orain erdietsi duen mailan.

Urtez urte, milaka kale-izen aztertzen eta irizpenak ematen jardun du Onomastika batzordeak. Esperientzia hori baliatu du arlo horretako arautze-irizpideak eguneratzeko, osatzeko eta xeheago deskribatuta berridazteko. Horren emaitza da aipatutako eskuliburua. Alfontso Mujikak dioen eran, ahalegin berezi bat egin da irizpide horiek modu didaktikoan azaltzeko, eta adibide-kopuru ohargarriarekin hornitu da.

Hizkuntza-irizpideez harago, kale-izenak hautatzeko irizpideei ere heldu zaie eskuliburuan. Gurean udalen eskumena da kale-izenak hautatzea, eta Onomastika batzordeari komenigarria iruditu zaio horretaz zenbait iradokizun orokor biltzea, edozein hizkuntzarentzat balio dutenak.

Irizpide ortotipografikoek ere tokia dute eskuliburuan. Bereziki, kale-izenetan letra larriak nola erabili behar diren deskribatzen da. Hizkuntza-irizpideen atalean kale-izenen kudeaketan ardura eta kezka duen orori ager dakizkioken galdera asko daude. Arazo horiei erantzuten saiatu da Onomastika batzordea, argibideak emanez.

Aurkezten dugun liburuaren azken kapituluan Paskual Rekalde Onomastika batzordeko kideak argibideak ematen ditu Euskaltzaindiak 2019an plazaratu duen pertsona-izendegi berrituaz. Lehenik, aurreko izendegiaz ari da (ezaugarri nagusiak, datuen iturriak eta egitura orokorra), eta, ondoren, oraingo izendegiaren berritasunak azaltzen ditu (euskarria, izenen sailkapena eta egitura

berria). Noski, izendegi berrituak ez ditu agortzen ildo horretan egin behar diren lanak, eta egileak etorkizuneko urrats premiazkoenak aipatzen ditu.

Izendegi berrituak dakartzan berritasunen artean izen epizeno edo neutroen saila nabarmentzen du. Egileak dioen eran, gai hori ez zaio sekula arrotza izan Euskaltzaindiari, baina zenbait izeni sexu jakin bat ez esleitzeak lege-oztopo argia izan du: 1957ko Erregistro Zibilaren Legea. Urrats bat aurrera egin du Akademiak izendegi berrituan, eta jadanik euskarak pertsona-izen epizenoak ditu, izen maskulinoez eta femeninoez gainera.

Azken buruan, liburu erakargarri eta erabilgarri bat osatzea izan da gure nahia, onomastika aplikatuan ardura eta interesa duten guztiei zuzendua. Euskal onomastikaren inguruko lanak eta ekarpenak ezagutzera ematearekin batera, beharrezkotzat jotzen dugu beste hizkuntza batzuen esperientziak jasotzea eta bihar-etziko egitekoez eta erronkez gogoeta egitea.